



## **LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok Haurreskolak Partzuergoko gerenteari dimisioa aurkeztu dezala exijitzen diogu**

Zorione Etxezarragak EAEko Legebiltzarreko Hezkuntza batzordean hilaren 16an egindako adierazpenek eraman gaituzte ezinbestean erabaki hori hartzera: aurrekontu faltagatik Haurreskolak Partzuergoko Lan Hitzarmena eta akordioak ez dituela betetzen onartu du.

Haurreskolak Partzuergoan ordezkariak dugun sindikatu guztiok Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean egindako agerraldian 0-3 hezkuntza-zikloaren garrantziaren aitortza eskatzeaz gain, hezkuntza-eskubidea jaiotzatik aldarrikatu genuen, eta, horregatik, Haurreskolak Partzuergoaren erabateko doakotasuna eta sarbide unibertsala bermatzea eskatu genituen. Ostean, Zorione Etxezarragak aipaturiko azalpenak eman zituen hilaren 16an batzorde berean. Agerraldi horretan argi esan zuen Haurreskolak Partzuergoko hitzarmen eta akordio desberdinak ez dituela betetzen, horretarako diru nahikorik ez duelako. Ez da onargarria enpresa publiko baten kudeatzaileak horrelako adierazpen publikoak egitea. Pentsaezina litzateke, gainera, horrelakorik egitea gainontzeko irakaskuntza publikoko kolektiboetan. Dirua ez izateak ez dio arrazoia ematen: kalitatezko zerbitzua eta langileen eskubideak bermatzeko beharrezkoa den aurrekontua dagokion Sailean eskatzea da bere ardura gerente gisa. Haurreskolak Partzuergoaren egunerokotasuna, berriz, osatzen duten langileen profesionaltasun eta borondate onaren ardurapean geratu da, gerenteak bereak diren ardurak ahaztu duen eta administrazioa ezikusiarrena egiten aritu den bitartean.

LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok Haurreskolak Partzuergoaren aurrekontua handitzeko momentua dela azpimarratu nahi dugu, kalitatezko zerbitzu publikoa eta langileen eskubideak bermatu ahal izateko. Era berean, Haurreskolak Partzuergoaren aitortza politikoa, haurreskoletako langileen, haurren eta familien beharretara egokitutako politikak, eta Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzena eskatzen ditugu.

Hortaz, EAEko Legebiltzarreko agerraldian egindako adierazpenengatik, Zorione Etxezarragari dimisioa aurkeztu dezala exijitzen diogu eta, Haurreskolak Partzuergoko Lehendakaria eta Hezkuntza sailburua den Jokin Bildarratzi, bere erantzunkizuna asumitu dezala eskatzen diogu.

LAB, STEILAS eta ELA sindikatuak

2020ko azaroaren 19an